

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatuko bilera

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatua batzartu da gaur eta bileran honakoak izan dira: Unai Rementeria Maiz jauna, Bizkaiko Ahalduen Nagusia eta Fundazioaren Batzorde Beteazlearen Presidentea; Juan Mari Aburto jauna, Bilboko Alkatea; Bingen Zupiria jauna, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua; Lorea Bilbao andrea, Euskara eta Kultura Foru Diputataua; Fundazioaren gobernu-organo gorenaren zati diren enpresen eta erakundeen ordezkariak; eta New Yorkeko eta Bilboko Guggenheim Museoen Zuzendariak, Richard Armstrong jauna eta Juan Ignacio Vidarte jauna, hurrenez hurren.

Museoaren urteko lehen bost hilabeteko jardunaren balantzea erreparatuz hasi da bilera; epealdi horretan, eta gaurko eguna arte, bisitarien kopurua 454.047 pertsonakoa izan da, 2016ko epealdi berean izandakoa baino %4 gehiago eta data honetarako aurreikusitakoa baino %29 gehiago. Saio honetan, gainera, Fundazioaren 2016ko ekitaldiko kontuak onartu dituzte.

Bileran zehar, Plan Estrategikoaren burutzapen-egoeraren berri eman da, eta Community deitutako harreman-sarearen sorkuntzaren inguruan mintzatu dira bereziki: ekimen horrek Banakako Kideak eta Kide Korporatiboak batzen ditu, bai eta arte eta kultura zaleak ere. Bihar, ekainak 20, asteartea, jarriko da martxan. Halaber, Museoaren XX. Urteurrenaren baitan 2016ko urritik gauzatutako jarduera desberdinak ere ezagutarazi dira.

Saio honetan, Museoak 2018rako taxutzen diharduen arte-proiektuen aurrerapenak jakinarazi zaizkie Patronatuko kideei. Tartean dira erakusketa klasikoak: adibidez, XX. mendeko arte eta literaturako pertsonaia sailkaezina eta sortzaile ugariarentzat erreferente izan zen Henri Michaux-ri eskainitakoa; eta Thannhauser Bilduma, New Yorkeko Guggenheim Museoaren Bildumako lanekin egindako bigarren erakusketa, 2014ko abenduko Kudeaketa Hitzarmenaren berrikuntzaren baitan zegoena. Halaber, aldi baterako erakusketa gogoangarriak egongo dira; hala nola, Txina modernoaren historian egondako epealdi eraldatzaileenari eskainitako *Artea eta China 1989 eta gero: munduko antzerkia* edo XX. mendeko itzal handiko eskultore-margolari Alberto Giacometti-ri eskainitako atzera begirakoa. Gainera, izaera garaikideagoa duten erakusketak egitea aintzat hartzen ari da Museoa: Esther Ferrer artista donostiarraren lan ezezagunak, Joana Vasconcelosen sorkuntzak eta, garai digitalean bete-betean murgilduta gaudenez, *Architecture Effects* erakusketa, arte eta arkitekturaren konexioak aztertuko dituen. Erakusketa horiek Film & Video aretoaren programazioaren baitako bideo-instalazioen aurkezpenekin osatuko dira; oraingoan Michael Snow, Diana Thater eta Javier Téllez artisten eskutik etorriko dira lan horiek.

Azkenik, Patronatuari jakinarazi zaio Sociedad Tenedorak, gaurko saioan, Jenny Holzer-ek egindako hiru artelaren dohaintza onartu duela: granito gorritzko banku bat, granito txurizko banku bat, eta marmol zurizko bi banku kurbatu; azken horrek *Arno* serieko aforismoak ditu zizelkatuta euskaraz, eta, beraz, obra paregabe eta originala da. Testu horiek dira Bildumakoa den *Bilborako instalazioa* lanaren oinarria. Beste 13 obrarekin batera, tartean Daniel Buren-en *Arcos rojos/Arku gorriak*, Museoak XX. Urteurrenaren baitan gauzatu den Kontserbazio Proiektuaren parte da Holzerrera; proiektu horrek helburu du osagai teknologikoak dituzten Bildumako lanak eguneratzea.